f) Ekipamendua jendearentzat irekitzeko ohiko ordutegia. Gehienez ere 10 puntu, baremo honen arabera:

f) Horario habitual de apertura al público del equipamiento. Hasta un máximo de 10 puntos, según el siguiente baremo:

1) Astean 40 ordu baino gehiago. 10 puntu.

1.º Superior a 40 horas semanales. 10 puntos.

2.) Astean 25 ordu eta 40 ordu bitartean. 5 puntu.

2.º Entre 25 horas y 40 horas semanales. 5 puntos.

3) Astean 25 ordu baino gutxiago. 2 puntu.

3.º Menos de 25 horas semanales. 2 puntos.

g) Aurkeztutako proiektuaren kalitatea eta xehetasuna. Gehienez 5 puntu.

g) Calidad y detalle del proyecto presentado. Hasta un máximo de 5 puntos.

h) Erakunde eskatzailearen udal-korporazioaren edo zuzendaritza-organoaren osaera. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:.

h) Composición de la corporación municipal u órgano directivo de la entidad solicitante. Hasta un máximo de 5 puntos, con la siguiente distribución:

1) Gutxienez emakumeen % 50ek osatzen badute: 3 puntu.

1.º Si está compuesto al menos por un 50 % de mujeres: 3 puntos.

2) Gutxienez % 60 emakumeak badira: 4 puntu.

2.º Si está compuesto al menos por un 60 % de mujeres: 4 puntos.

3) Gutxienez % 70 emakumeak badira: 5 puntu.

3.º Si está compuesto al menos por un 70% de mujeres: 5 puntos.

i) Erakunde eskatzailearen udalburua edo zuzendaritza-organoa emakume bat bada, 5 puntu emango dira.

i) Si la presidencia de la corporación municipal u órgano directivo de la entidad solicitante la ostenta una mujer, se valorará con 5 puntos.

j) Eskualdeko, lurraldeko, autonomia-erkidegoko, estatuko edo Europako kultura-proiektu edo -sareetan (SAREA, POCTEFA, Iparraldeko Eszena Bidea...) parte hartzea. Gehienez 3 puntu (puntu 1 partaidetza-eremu bakoitzeko).

j) Participación en proyectos o redes culturales de carácter comarcal, regional, autonómico, nacional o europeo (SAREA, POCTEFA, Camino Escena Norte...). Hasta 3 puntos (1 punto por cada ámbito de participación).

k) Aurkeztutako ekipamenduek, eskabidea aurkezteko epea amaitzen denean, Bizkaiko Ekosistema Kultural eta Sortzailean profil publikoa izatea 2 punturekin baloratuko da. Honako esteka honetan dago eskuragarri profil hori:

k) Se valorará con 2 puntos, que el equipamiento presentado disponga a fecha de finalización del plazo de solicitud, de un perfil público en el Ecosistema Cultural y Creativo de Bizkaia, disponible en el siguiente enlace:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

https://www.bizkaia.eus/eu/kultura-eta-sormen-ekosistema

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatuko du egoera hori.

2. Diru-laguntzaren gehieneko ehunekoa proiektuaren aurrekontu araztuaren % 80era artekoa izango da, eta gehienez 230.000 eurokoa.

3. Proposatutako azken diru-laguntzen zenbatekoa zenbaki osoetara biribilduko da, beherantz.

4. Halaber, Epaimahai Kalifikatzaileak ezarriko du foru diru-laguntza jasotzeko eskubiderik izango ez duen puntu atalasea edo muga.

5. Inola ere ez da emango erakundeak eskatutakoa baino zenbateko handiagoko diru-laguntzarik.

11. oinarria. *Aholkularitza.*

Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak laguntza teknikoa edo aholkularitza emango du foru dekretu honi buruzko edozein zalantza edo kontsulta izanez gero. Horretarako, hemen eskura daiteke:

http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza

12. oinarria. *Epaimahai kalifikatzailea.*

1. Aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzailea osatuko da eta kideak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak izendatuko ditu foru aginduaren bidez.

Epaimahai hori osatzen duten pertsonek behar besteko gaitasun teknikoa, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute eskabideetan eskatzen diren betekizunak behar bezala baloratzeko eta deialdi honen xede diren proiektuak baloratzeko.

https://web.bizkaia.eus/es/ecosistema-cultural-y-creativo

La verificación de dicha situación se realizará por parte del Servicio de Acción Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.

2. El porcentaje máximo de subvención será de hasta un 80 % del presupuesto depurado del proyecto y como máximo de 230.000 euros.

3. La cuantía de las subvenciones finales propuestas será objeto de redondeo a números enteros a la baja.

4. Asimismo, el Tribunal Calificador establecerá el umbral de puntos por debajo del cual no habrá derecho a la obtención de subvención foral.

5. En ningún caso se concederá subvención por importe superior al solicitado por la entidad.

Base 11. *Asesoramiento.*

El Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria ante cualquier duda o consulta referida al presente decreto foral, a cuyos efectos se encuentra disponible en:

http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza

Base 12. *Tribunal Calificador.*

1. Para el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un tribunal calificador cuyas personas integrantes serán designadas por la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte mediante orden foral.

Las personas integrantes del mismo contarán con la capacidad técnica, administrativa, funcional y directiva suficiente para la adecuada apreciación de los requisitos exigidos en las solicitudes y valoración de los proyectos objeto de la presente convocatoria.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Halaber, izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Igualmente, se cumplirá lo establecido en el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2. Diru-laguntzak adjudikatzeko irizpideak kontuan izanda, epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

2. El Tribunal Calificador, habida cuenta de los criterios para la adjudicación de las subvenciones, presentará la propuesta de resolución a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, con el fin de que se dicte la resolución definitiva.

13. oinarria. *Ebazpena*.

Base 13. *Resolución*.

1. Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, deialdi honetan ez da aurreikusten ebazpena lehenengoz behin-behineko ebazpen-proposamen baten bidez ematea eta horren ondoren interesdunei entzunaldia ematea; izan ere, prozeduran ez dira azaltzen eta ez dira kontuan hartuko interesdunek azaldutakoak ez beste egintza, alegazio edota froga.

1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las entidades interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las entidades interesadas.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatuko du eskatzaileek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla zordunak diru-laguntza itzultzeagatik. Horiek egiaztatu ondoren, eskatzaileren batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen ikusiz gero, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean, egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko, zaio egoera erregularizatu ezean, eskabidea atzera egindakotzat joko dela.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Acción Cultural comprobará que las solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, y que no son deudoras por reintegro de subvención. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguna incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de 10 días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida, previa la correspondiente resolución.

3. Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hilabete batekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Ebazpena Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak emango du, Epaimahai Kalifikatzaileak proposaturik.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de las solicitudes será de un mes, a contar desde la finalización del plazo de entrega de solicitudes. La resolución será dictada por la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, a propuesta del Tribunal Calificador.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Epe hori igarotakoan berariazko ebazpenik eman ez bada eta jakinarazi ez bada, ezetsitzat joko da, betiere geroago berariaz ebazteari kalterik egin gabe.

Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la misma, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las personas y entidades interesadas que hayan presentado solicitud a los efectos de esta convocatoria pública mediante publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez ere helaraziko zaie interesdunei.

También se comunicará a las interesadas mediante el sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Berariaz aipatuko da administrazio-bidea agortzen duela, eta erakunde interesdunak errekurtsoa jarri ahal izango du haren aurka, nahi izanez gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren aurrean berraztertzeko errekurtsoa aurkeztuta, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztuz bi (2) hilabeteko epean, modu berean zenbatuta.

Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, y podrá ser recurrida por la entidad interesada, interponiendo contra ella, con carácter potestativo, recurso de reposición ante la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, contados de igual forma.

14. oinarria. *Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.*

Base 14. *Compatibilidad con otras subvenciones.*

1. Diru-laguntza hauekin batera beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk jaso ahal izango dira, xede berarekin, edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emanda, berdin dio nongo erakundeak diren: naziokoak, Europako Batasunekoak edo nazioartekoak.

1. Las subvenciones del presente decreto foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, excepto con otra subvención de la Diputación Foral de Bizkaia.

2. Diru-laguntza emateko kontuan izandako inguruabarretako bat aldatzen bada, eta beti ere estatuko edo atzerriko beste administrazio batek edo erakunde publiko zein pribatu batek beste diru-laguntza edo laguntzaren bat emanez gero, horren kariaz gerta liteke emate ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araupetutako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda, inolaz ere ezin baita izan

2. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos otorgados por otras administraciones o entes públicos, municipales, autonómicos, estatales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, dado que el importe de las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral, en ningún caso, podrá ser

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, incluida la financiación propia exigida, supere el coste de la actividad que desarrolle la entidad beneficiaria.

IV.TITULUA

## Diru-laguntzen kudeaketa eta justifikazioa

15. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea.*

1. Baldin eta deialdi hau ebazten duen foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamar egun baliodunеko epean onuradunak berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da, eta Kultura Ekintza Zerbitzuak ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantza Sailaren aurrean, eta horretarako ez zaie inolako bermerik eskatuko onuradunei.

Hala ere, onuradunen batek edo batzuek emandako diru-laguntzari uko egiten badiote, uko horrek ez du inola ere ekarriko deialdi honen ebazpenaren baldintzak aldatzea.

2. Diru-laguntza ordaindu aurretik, egiaztatuko da onuradunek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla zordunak diru-laguntza itzultzeagatik.

Egiaztapena egin ondoren, onuradunen batek aurreko atalean ezarritakoa betetzen ez duela ikusita, errekerimendua egingo zaio, hamar (10) eguneko epearen barruan egoera erregulariza dezan; eta, hori egiten ez badu, eman zaion diru-laguntzarako eskubidea galdu egingo duela jakinaraziko zaio.

16. oinarria. *Itzulketa, jasotzailearen ekimenez.*

1. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko Diru-laguntzei buruzko Araudia onesten duenak, 76. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, erakunde

TÍTULO IV

## Gestión y justificación de las subvenciones

Base 15. *Pago de la subvención.*

1. Si en el plazo de diez días hábiles tras la fecha de publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia de la orden foral que resuelve la presente convocatoria la persona beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada, y el Servicio de Acción Cultural procederá a tramitar su abono ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a las beneficiarias.

No obstante, si alguna o algunas beneficiarias renunciasen a la subvención concedida, dicha renuncia no implicará en ningún caso la modificación de los términos de la resolución de la presente convocatoria.

2. Previo al pago de la subvención, se comprobará que las beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social, y que no son deudoras por reintegro de subvención.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que alguna beneficiaria incumple algunas de las obligaciones señaladas, será requerida para que en el plazo de 10 días regularice tal situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida.

Base 16. *Devolución a iniciativa de la perceptora.*

1. De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

onuradunak diru-laguntza Bizkaiko Foru Aldundiari itzultzea erabaki dezake Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzen ez badu ere.

Kasu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak berandutze-interesak kalkulatuko ditu, diru-laguntza itzuli artekoak, arau horren 76. artikuluan aipaturikoarekin eta 5/2005 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Erakunde onuradunak berak hala eskatuta aldundiaren diru-laguntza itzuliko bada, ordain-gutun egokia aurkeztu beharko da. Gutuna diru-laguntza kudeatzen duen Kultur Ekintzako Zerbitzuaren egoitzetan eskatu eta izapidetuko da. Aipatutako ordain-gutunean itzuli beharreko zenbatekoa kontsignatuko da (printzipala eta berandutze-interesak), modeloaren kodea eta sarreraren arrazoia. Horrekin batera, itzuli beharreko diru-laguntza ere aipatu beharko da.

3. Onuradunak finantza erakunde batean itzuli behar du diru-laguntza; hori egin ostean, itzulketaren frogagiria aurkeztu beharko da Kultur Ekintzako Zerbitzuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

17. oinarria. *Justifikatzeko epea eta modua.*

Foru dekretu honetan araututako diru-laguntzen onuradunek konpromiso hauek hartzen dituzte:

1. Diru-laguntzaren xede den jarduera egitea, 2023ko eta/edo 2024ko ekitaldietan.

2. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzen Erregelamenduaren 57 artikuluaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aurrean justifikatu beharko da jarduerak egin direla, diru-laguntza ematea eragin zuten baldintzak bete direla eta diruz lagundutako

la beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última.

En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

2. La devolución de la subvención foral a instancia de la beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio de Acción Cultural. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses de demora), código del modelo y motivo del ingreso, haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

3. Una vez practicado el abono por la beneficiaria de la subvención en una entidad financiera, habrá de remitirse justificante del respectivo ingreso al Servicio de Acción Cultural a través de la presentación en la sede electrónica.

Base 17. *Plazo y forma de justificación.*

Las beneficiarias de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral se comprometen a:

1. Realizar la actuación objeto de subvención, durante los ejercicios 2023 y/o 2024.

2. Conforme al artículo 57 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, justificar ante el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia la realización de las actividades, el cumplimiento de las condiciones que motivaron su concesión y la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

proiektuaren zenbatekoaren gastua aplikatu dela. Horretarako, ondoren adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da egoitzan, eta honako hau izango da 2025eko martxoaren 28a azken eguna, ondorio hauetarako:

aplicación del gasto del importe del proyecto subvencionado a través de la presentación en sede electrónica, de la documentación que a continuación se relaciona, fijándose como último día, a estos efectos, el 28 de marzo del 2025:

1) Egindako jarduerak justifikatzeko memoria.

1.º Memoria justificativa de las actuaciones desarrolladas.

2) Memoria ekonomikoa, diruz lagundutako jardueren kostua justifikatuko duena:

2.º Memoria económica justificativa del coste de las inversiones desarrolladas:

a) Nahikoa ahalmen duen erakunde eskatzaileko pertsona batek izenpeturiko zinpeko adierazpena. Bertan adieraziko da ez dagoela diruz lagundutako proiektuari egotzitako beste diru-sarrerarik, aurreko atalean beren beregi bildutakoetatik aparte.

a) Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad solicitante con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto subvencionado al margen de los indicados.

b) Onuradunak egindako hiru hornitzaileen eskaintzak gutxienez egiaztatzen dituen frogagiria aurkeztu beharko du nahitaez, baldin eta administrazio-kontratazioaren araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira (Diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua), salbu eta haren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago mailegua ematen duen erakunde nahikorik edo gastua eskaera egin aurretik egin bada. Memorian zuritu beharko du hornitzailearen aukeraketa proposamenik merkeena hautatu ezean.

b) La beneficiaria debe aportar justificación documental que acredite como mínimo las ofertas realizadas por tres diferentes proveedores cuando se superen las cuantías establecidas en la correspondiente normativa de contratación administrativa para el contrato menor (art. 29.3 de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones), salvo que por las especiales características del mismo no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo presten o que el gasto se haya realizado con anterioridad a la solicitud. Deberá justificar en una memoria la elección del proveedor cuando la misma no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

c) Diruz lagundutako jarduerak direla-eta, sortutako gastuen fakturak eta obra-ziurtapenak aurkeztuko dira.

c) Aportación de las facturas o certificaciones de obras de los gastos originados con motivo de las actividades subvencionadas.

d) Faktura horien ordainagiriak edo obra-ziurtagiriak.

d) Justificantes de los abonos de dichas facturas o certificaciones de obras.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, bere kabuz edo beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez, diruz lagundutako proiektuen jarraipen edo ebaluazio bisitak egin ahal izango ditu, diruz lagundutako erakundeari aldez aurretik

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia podrá realizar, por sí mismo o a través de otras personas o entidades, visitas de seguimiento o evaluación de los proyectos subvencionados, previo aviso a la entidad

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jakinarazita. Bisita horietan, erakundeak tokietarako sarbidea eta eskatzen den informazioa eman beharko du.

subvencionada, en las que ésta deberá facilitar el acceso a los lugares y la información que se requiera.

18. oinarria. *Diru-laguntzaren onuradunaren beste betebehar eta konpromiso batzuk.*

Base 18. *Otras obligaciones y compromisos de la beneficiaria de subvención.*

Erakunde onuradunek diru-laguntzak onartzen badituzte, Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan oro har ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte nahitaez. Gainera, honako betebehar hauek izango dituzte:

La aceptación de las subvenciones por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. Estarán, además, obligadas a lo siguiente:

a) Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea Kultur Ekintzako Zerbitzuari, egoitzaren bidez.

a) Comunicar por sede al Servicio de Acción Cultural la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

b) Egoitzaren bidez, jardueren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea Kultur Ekintzako Zerbitzuari. Halaber, diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipen egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.

b) Comunicar por sede al Servicio de Acción Cultural las fechas de inicio y de terminación de las actuaciones y facilitar la realización de las funciones o facultades de control, seguimiento e inspección de la actividad subvencionada.

c) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailarekin elkarlanean aritzea eskatzen zaionean, kultur eremuari buruzko informazioa aurkeztuz (azterlanak, inkestak, estatistikako datuak eta abar).

c) Colaborar con el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte en aquellos supuestos, en los que le sea requerido, aportando cualquier tipo de información relativa al ámbito cultural (estudios, encuestas, datos estadísticos, etc.).

d) Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eta Ogasun eta Finantza Sailaren, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren egiaztapen-jarduketa guztiak onartu behar dituzte.

d) Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúen los Departamentos Forales de Euskera, Cultura y Deporte y de Hacienda y Finanzas, así como el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

e) Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea honako arlo hauetan: lanpostuak definitzea, horiek lortzea, kontratazioa eta iraungitzea, lanbide-sailkapena, sustapena, prestakuntza, segurtasuna eta osasuna lanean, ordainsarien politika, erantzunkidetasuna eta bizi pertsona, familiar eta

e) Promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lanekoa bateragarri egitea, lanaren kalitatea eta egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolaketa eta sindikatu-ekintza, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboa. Hala, lan-baldintza duin, zuzen eta diskriminaziorik gabekoak ziurtatuko dira.

estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

f) Zaintzea emakume eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazio baliokidea izatea eta irudia sustatzea balio hauetan oinarrituta: berdintasuna, presentzia orekatuta, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta rol zein genero-identitateen pluraltasuna. Hori guztia egingo da, proiektua edo jarduera egikaritzen denean, bai idatzizko, bai ahozko informazioan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barne eta kanpoko komunikazioan, formalean eta informalean, baita sortutako materialetan edo lanarekin zerikusia duten horietan ere.

f) Velar por que el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal, como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

g) Diruz lagundutako proiektua egitean, mota guztietako hizkuntzetan (dokumentala, bisuala, eta abar), bai idatzizko euskarrian bai euskarri digitalean, hizkuntza ez sexista erabiltzea eta datuak sexuen arabera banatzea sortzen dituzten estatistika guztietan; hori guztia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3. artikuluan xedatutakoak betez; bertan daude zehaztuta errespetatu beharreko printzipio orokorrak.

g) Asumir, en la ejecución del proyecto subvencionado, el uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) en cualquier soporte escrito o digital, y desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que, en su caso, se genere, todo ello al amparo del artículo 3 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

h) Egiaztatzea, hala dagokionean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela. Horretarako, betebehar hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera.

h) Acreditar, cuando proceda, el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres, conforme a lo previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva. A estos efectos, deberán presentar, junto con la justificación, declaración responsable del cumplimiento de esta obligación.

i) Plantillan hamabost langiletik gora izanez gero, bermatu beharko dute neurriak hartzen dituztela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre

i) Aquellas que cuentan con más de quince personas trabajadoras en plantilla deberán garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo. A estos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

egiteko. Horretarako, betebehar hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera.

efectos, deberán presentar, junto con la justificación, declaración responsable del cumplimiento de esta obligación.

j) Diruz lagundutako ekipamenduetan, sarrera guztietan plakak jarriko dira (letoizkoak, metakrilatozkoak, pvc-koak). Plaken eredua Kultur Ekintzako Zerbitzuak emango du, eta bertan adieraziko da jarduketa Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren laguntza ekonomikoarekin finantzatu dela. Betebehar hori betetzen ez bada, emandako diru-laguntzaren % 5 itzuli beharko da.

j) En los equipamientos subvencionados se colocarán en todos los accesos a los mismos, placas (de latón, metacrilato, pvc...), cuyo modelo será facilitado por el Servicio de Acción Cultural, en las que se haga constar que la actuación ha sido financiada con la colaboración económica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia. El no cumplimiento de esta obligación supondrá el reintegro del 5 % de la subvención otorgada.

k) Diruz lagundutako proiektuei dagozkien komunikazioetan Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen jardun-eremuan euskararen erabilera normalizatzeko planean xedatutakoaren arabera.

k) Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones referidas a los proyectos subvencionados, de acuerdo con lo dispuesto en el Plan de normalización del uso del euskera en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia y de sus organismos autónomos.

l) Diru-laguntzaren xede den inbertsioa egin den instalazioaren kultur-erabilera publikoari 4 urtez eustea, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita. Betebehar hori betetzen ez bada, emandako diru-laguntzaren % 5 itzuli beharko da.

l) Mantener la afección al uso público cultural de la instalación donde se haya realizado la inversión objeto de subvención durante 12 años desde la finalización de la actuación subvencionada. El no cumplimiento de esta obligación supondrá el reintegro de la subvención otorgada.

m) Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13. artikuluan aurrez ikusitako gainerakoak, eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onetsi zuen Diru-laguntzen Erregelamenduko 54. artikuluan eta hurrengoetan aurrez ikusitakoak.

m) Las demás previstas en el art. 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia y en los artículos 54 y siguientes del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo.

19. oinarria. *Itzultzea.*

Base 19. *Reintegro.*

1. Erakunde onuradunak oinarri hauetan eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako edozein betekizun eta betebehar betetzen ez badu, diru-laguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galdu duela deklaratuko da, eta diru-laguntza osorik edo zati

1. El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

batean itzuli beharko du, dagozkion berandutze-interesekin batera, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan eta hori garatzen duen Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorriz, besteak beste:

a) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.

b) Diru-laguntzaren helburua betetzen ez denean.

c) Erabaki honetan eskatzen den justifikazioa aurkezten ez bada edo aurkezten den justifikazioa nahikoa ez bada edo akastuna bada, justifikatu gabeko diru-laguntza zatia itzuli beharko da berandutza-korrituekin batera, aldez aurretik Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuak horrela eskatuta.

d) Diru-laguntza lortzea horretarako baldintzak bete gabe.

e) Ezarritako kontrol-jarduerak egiten ez uztea edo horretarako eragozpenak jartzea.

2. Dirulaguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, dirulaguntza itzuli beharko da.

20. oinarria. *Datu pertsonalen babesa.*

Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordez aplikatu beharreko gainerako araudia.

21. oinarria. *Aurrekontuko partida*.

1. Deialdi honetako diru-laguntzak emateko egongo den aurrekontuaren muga honako hau da:

de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el art. 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y en su Reglamento de desarrollo, entre otras:

a) Incumplimiento de la obligación de justificación.

b) No cumplir la finalidad para la que la subvención fue concedida.

c) La no justificación y la justificación insuficiente o deficiente en los términos establecidos en el presente decreto foral conllevará la obligación de reintegro, incluidos los correspondientes intereses de demora, de la parte de la subvención no justificada, previo requerimiento por parte del Servicio de Acción Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.

d) Obtener la subvención sin reunir los requisitos para ello.

e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas.

2. El exceso de financiación, con relación al coste de la actividad subvencionada, también constituirá motivo de reintegro.

Base 20. *Protección de datos de carácter personal.*

Será de aplicación la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio.

Base 21. *Partida presupuestaria.*

1. El límite del presupuesto para la concesión de las subvenciones de la presente convocatoria es el siguiente:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Bi milioi berrehun eta hamar mila (2.210.000,00) euro, 2023ko ekitaldiko G/0405/334104/732.99/0000_2007/0215 partidaren kargura, udalei eta Kulturako udal-erakunde autonomoei dirulaguntzak emateko.

a) Dos millones doscientos diez mil (2.210.000,00) euros con cargo a la partida G/0405/334104/732.99/0000_2007/0215 del ejercicio 2023 para la concesión de subvenciones a ayuntamientos, y organismos autónomos municipales de Cultura.

b) Laurogeita hamar mila (90.000,00) euro, 2023ko ekitaldiko G/0405/334104/743.00/0000_2007/0215 aurrekontu-partidaren kargura, udal-sozietate publikoei dirulaguntzak emateko.

b) Noventa mil (90.000,00) euros con cargo a la partida presupuestaria G/0405/334104/743.00/0000_2007/0215 del ejercicio 2023 para la concesión de subvenciones a Sociedades Públicas Municipales.

Banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzen Erregelamenduaren 43. artikuluaren 4. eta 5. zenbakiekin bat etorriz, deialdia ebatzi aurretik aldatu ahal izango da, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira kreditu erabilgarrien aitorpena eta behin betiko banaketa, gastu-espedientean beharrezkoak diren aldaketak egin ondoren, eta publizitate horrek ez du ekarriko eskabide berriak aurkezteko epea irekitzea, ez eta ebazteko epea berriro zenbatzen hastea ere.

Dicha distribución tendrá carácter estimativo, y, de conformidad con los apartados 4 y 5 del artículo 43 del Reglamento de Subvenciones aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, podrá modificarse con anterioridad a la resolución de la convocatoria mediante orden foral de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte. Se publicarán en el Boletín Oficial de Bizkaia la declaración de créditos disponibles y la distribución definitiva, tras realizar los cambios que fueren necesarios en el expediente de gasto, sin que tal publicidad implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes ni el inicio de nuevo cómputo de plazo para resolver.

2. Eskabide guztiak ebatzi ondoren, gehieneko aurrekontu-mugara iristen ez bada, gastu baimenaren deuseztapena izapidetuko da, soberako zenbatekoan.

2. Si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: YJ15-0186-P57V-NGZO
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus